



# Bizkaian ordenantzen analisi konparatua kutsadura akustikoaren ikuspuntutik Gaiak: ESPAZIO PUBLIKOA, UDAL ZERBITZUAK ETA OBRAK

Egileak:

TECNALIA R&I



EKOIURE S.L.



## **Bizkaian ordenantzen analisi konparatua kutsadura akustikoaren ikuspuntutik Gaiak: ESPAZIO PUBLIKOA, UDAL ZERBITZUAK ETA OBRAK**

### AURKIBIDEA

1. Sarrera **¡Error! Marcador no definido.**
2. Espazio publikoaren gaiaren analisi konparatua: terrazak **¡Error! Marcador no definido.**
3. Espazio publikoaren gaiaren analisi konparatua: txosnak, jaiak eta barrakak **¡Error! Marcador no definido.**
4. Espazio publikoaren gaiaren analisi konparatua: gizalegez jokatzea eta botiloia **¡Error! Marcador no definido.**
5. Bide publikoko obren gaiaren analisi konparatua **¡Error! Marcador no definido.**
6. Txoko eta gazte lokalen gaiaren analisi konparatua **¡Error! Marcador no definido.**
7. Ondorioak **¡Error! Marcador no definido.**

## 1. Sarrera

Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak ibilbidea luzea egin du udalerriei kutsadura akustikoaren inguruan aholkularitza eskaintzen. Hala ere, 2013-2017 denbora tartean mugarri bat gertatu zen, hain zuzen ere Soinu Kalitatea Hobetzeko Bizkaiko Estrategia abiarazi baitzen; bertan bildu ziren Bizkaiko Foru Aldundiko sailetan 5 urteko tarte horretan zarataren esparruan garatutako jarduketak.

Tarte horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak zenbait gida tekniko garatu edo eguneratu zituen, hain zuzen ere, 213/2012 Dekretuaren esparruan eskumenak baliatzeko Bizkaiko udalerriei euskarria emateko helburuz:

- Egiturazko antolamenduan zaratsaren kudeaketa txertatzeko gida teknikoa: Zonifikazio Akustikoa
- EAEn kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretua aplikatzeko gida teknikoa etorkizuneko garapenetan.
- Toki administrazioetan giro zarata kudeatzeko gida teknikoa, EAEn kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuan oinarrituz.
- Eragin akustikoa sor dezaketen egoitzako hiri lurzoruan jarduerak kontrolatzeko gida teknikoa, soinua lokal mugakideetara helaraziz. 213/2012 Dekretua aplikatzeko euskarria. Laburpen fitxa.

Gida horien helburua Bizkaiko udalei lan egiteko moduak eskaintzea zen, 213/2012 Dekretuarekin zuzenean lotutako gaietara dagokienez, eta lotura estua izanik planeamenduan zarata integratzearekin, giro zarataren kudeaketarekin eta zarata transmititzeko aukera izanik jarduerak kontrolatzearekin

Hala ere, Estrategia garatzean udalen beste kezka batzuk ere identifikatu dira; beste gai akustiko batzuei lotuta geratu dira, eskumen propioko esparruei dagozkienak, eta kasu horietan antzeman da ez dagoela araudi esparrurik.

Hona hemen gai horiek:

- *Espazio publikoaren erabilera eta kutsadura akustikoa*: Bizkaiko udalerrietako espazio publikoa estres akustiko handiaren eraginpean dago, mota desberdinetako jarduerak elkartzen direlako: ekitaldiak, terrazak, kaleko musikariak, etab. Jarduera horien erregulazio akustiko eta operatiboa espazio publikoaren eta/edo ordenantza akustikoen testuinguruan egin ohi da.

- *Udal zerbitzuen eragin akustikoa:* Garbiketako udal zerbitzuek, hondakinak biltzeko zerbitzuek eta lorezaintza zerbitzuek herritarren kexak sorrarazten dituzten, eta udal teknikarientzat erronka bihurtu ohi dira hobekuntza akustikorako tarte txikia izan ohi delako. Erabili beharreko makineria zein ordutegiak eta ibilbideak landu beharreko gai gakoak dira; bidenabar, langileek aplikatu beharreko jardunbide onen aldagaia ere landu daiteke.
- *Obrek eragindako kutsadura akustikoa kontrolatzea:* bide publikoan egindako obrak beharrezko aldi baterako jarduera bat dira, baina eragin akustiko handia sorrarazten dute. Udal askotan jarduera horiek egiteko ordutegia araututa dago, baina erronka eragin akustikoa sorrarazteko gaitasuna mugatzean datza, horrelako jardueretarako logikoa den atalasearen ginetik, eta kontrolatzeko jarraibideak definitzea.

Analisi konparatu honen helburua da Bizkaiko hainbat udalerrik horrelako gaiak nola lantzen dituzten jakiteko egoera planteatzea, ondorioak eta gomendioak ateratzeko. Analisi konparatu honekin hasitako lanaren azken helburua gida bat garatzea da, sailek dagoeneko garatutakoek bezalaxe udalei dagozkien eskumenak garatzeko gakoak identifikatzen laguntzeko.

## 2. Espazio publikoaren gaiaren analisi konparatua: terrazak

Espazio publikoaren analisi honen barruan hainbat gai jorratu behar dira: terrazak, txosnak, jaiak, barrakak, ekitaldiak, gazteen lokalak eta txokoak, baita auzokideen jokamoldea ere.

Jarraian, laburpen modura eta ordenantza guztiak berrikusi ondoren, proposamen gisa ondorio hauek lor daitezke:

### **Ordutegia:**

*Irekitzea:* 08:30 eta 09:00 artean. Beti zamalaren ondoren egingo da, terraza horrelako ezaugarriak dituen zona batean badago. Ixtea: Inoiz ez da lokalaren ordutegiaren ondoren luzatuko.

Neguan, lanegunetan: 22:00

Neguan ostiral, larunbat edo jaiegunen bezperan: 23:00

Udan, lanegunetan: 23:00

Udan ostiral, larunbat edo jaiegunen bezperan: 24:00

Herriko jaietan eta esanahi bereziko jaietan: udako ordutegian bezala + 1h Ordutegi horretatik kanpo baldintza berezietako baimenak eman daitezke. Instalazioa desmuntatzeko 20 minutu emango dira.

### **Funtzionamendu baldintzak zaratari dagokionez:**

Altzari guztiek gomazko elementuak izango dituzte, euskarri guztiak erabat biltzeko; hala, kanpoan arraste eta kolpeen ondoriozko zaratak ekidingo dira.

Terrazan, debekatuta daude soinuak eta/edo irudiak emateko gailuen instalazioak, esaterako musika ekipoak, bozgorailuak, telebistak edo antzeko beste edozein (informatika ekipoak, karaokeak, etab.). Soilik soinurik gabeko irudi irakurgailuak jartzea baimenduko da (telebistak, proiektagailuak, etab.).

Musika ekipoak jartzeko baimena daukaten lokalek, eta mahaitxoak instalatzea baimenduta badaukate,<sup>1</sup> ezingo dute ekipoa erabili mahaitxo eta aulkiak instalatuta dauden bitartean; leiho-mostradorea itxita egon beharko da, eta jarduerari eskatutako gutxienerako isolamendua bermatu beharko du.

Jardueraren titularrak ardura hauek izango ditu:

- Terrazatik kanpo bere jarduerako edariak ez kontsumitzea zaintzea.
- Inguruko auzokideei molestiak eta zaratak saihestea, zorrotz; okupatutako zona modu egokian erabiliko da.
- Terraza erabili eta funtzionamendutik eratorritako Zaraten Ordenantzan ezarritakoa betetzea<sup>2</sup>.

### **3. Espazio publikoaren gaiaren analisi konparatua: txosnak, jaiak eta barrakak**

Espazio publikoaren analisi honen barruan hainbat gai jorratu behar dira: terrazak, txosnak, jaiak, barrakak, ekitaldiak, gazteen lokalak eta txokoak, baita auzokideen jokamoldea ere.

Jarraian, laburpen modura eta ordenantza guztiak berrikusi ondoren, proposamen gisa ondorio hauek lor daitezke:

#### **Txosnen ordutegia:**

*Hasiera:* 11:00etatik 12:00etara. Zamalanak hasiera ordutegia baino lehen egingo dira.

*Ixtea:* alda daiteke eta, batzuetan udalak zehatz dezake, jai batzordearekin batera, jai une bakoitzean. Oro har:

02:00 edo 03:00etatik 05:00 edo 06:00etara (esanahi bereziko egunetan).

---

<sup>1</sup> Aukera hau ez da gomendagarria: musika ekipoa edukitzeko baimena daukaten lokalek terraza izatea baimentzea.

<sup>2</sup> Exijentzia honek zenbait eragozpen ditu, hain zuzen ere zaila delako terraza jarduera batek kalitate akustikoko helburuak lortzea, giza ahotsen ondorioz, eta zarata hori instalazio bakarrari ematea konplexua delako

Auzoko jaien kasuan zorrotzago jokatu ohi da ixteko orduarekin, batez ere lanegunetan (24:00).

**Txosnetarako funtzionamendu baldintzak zaratari dagokionez:**

Megafonia bakarra eskatzen da, eta txosnetako batek hartuko du horren ardura.

Ekipoetan mugagailu bat jartzea eskatzea aplikagarria da, finkatutako gehienezko emisio mailak bermatzeko.

Emisioen gehienezko maileri dagokienez, jarraian ordenantza artean gehien errepikatutako proposamenetako batzuk bildu dira: Hala ere, udalerrri bakoitzean muga hori zehazteko azterlan bat egitea aplikagarritzat jotzen da, txosnak, aldizka, zein ingurutan kokatzen diren kontuan hartuta. Hala, uler daiteke, jarduera behin-behinekoa denez, fatxadan gehienezko inmisio mailak onar daitezkeela (soinu intzidentea), txosnen kokapenetatik gertuen dauden etxebizitzetan ebaluatuta:

- 24:00ak arte: 70 dBA
- 24:00etatik itxi arte: 65 dBA

Nolanahi ere, ordenantzetan emisioaren gehienezko mailari dagokionez erabilitako erreferentziarik ohikoenak honako hauek dira:

A aukera: 24:00ak arte: 95 dBA eta 24:00etatik itxi arte: 90/85/80 dBA. Aukera honetan ez da ebaluazio metodoa definitzen (funtsean distantzia zehaztu behar da neurketa egiteko).

B aukera: gehienezko emisio maila bozgorailuetatik 3 metrora neurtuta:

- Etxebizitzetatik 10 metro baino gutxiagora badaude: 75/60 dBA
- Etxebizitzetatik 10 eta 15 metro artean badaude: 80/70 dBA
- Etxebizitzetatik 15 metro baino gehiagora badaude: 85/75 dBA

Bilboko kasua da osatuenetako bat Aste Nagusiari dagokionez; izan ere, txosnak kokatzen diren eremuak zonifikatu egiten dituzte eta muga desberdinak jartzen dituzte izan dezaketen eraginari dagokionez (etxebizitzetatik gertu) eta jaiak ospatzeko kokapenaren garrantziari dagokionez.

**Barraken ordutegia:**

*Hasiera:* ez dago zehaztuta.

*Ixtea:* 24:00ak arte jaiegunetan eta 22:00ak arte lanegunetan. Musika kenduz gero beranduago ixteko aukera ematen zaie (03:00 eta 04:00, hurrenez hurren).

**Barraketarako funtzionamendu baldintzak zaratari dagokionez:**

Megafonia bakarra eskatzen da, eta banakako mezuak baimentzen dira.

Soinu emisioa mugatzeari dagokionez, txosnen tratamendu bera aplikatzea desegokitzat jo da, erabiltzaileak (haurrak) babesteari dagokionez.

Hortaz, kasu honetan emisio maila mugatzea gomendatzen da (erabiltzailea ere babesten du) eta txosnetarako B aukerak planteatutako mugak (5 dBA) murriztea.

Bestalde, txosnetarako garatutakoarekin batera, ekipoetan mugagailu bat jarri behar izatea eskatzea aplikagarritzat jo da, finkatutako emisioen muga balioak bermatuz.

Nolanahi ere, ordenantzetan proposatu da txosnei emandako tratamendu bera aplikatzea, edo bozgorailuetatik 1,5 metrora neurtutako gehienezko emisio maila honako hau izatea:

- 90 dBA, 22:00ak arte
- 70 dBA, 22:00etatik itxi arte.

#### **4. Espazio publikoaren gaiaren analisi konparatua: gizalegez jokatzeta eta botiloia**

Jarraian, laburpen modura eta ordenantza guztiak berrikusi ondoren, lortutako ondorioak honako hauek dira:

##### **Auzokideen jokabidea**

Ohar orokor edo zabaletan oinarritutako erregulaziotik lantzen da:

Bide publikoan eta bizikidetzak publikoko zonetan zaratak egitea, edo eraikinen barrualdean, herritarren bizikidetzak eskatzen duen mugen barruan egon beharko da, batez ere gauez. (Bereziki gaueko orduategian (22:00etatik 08:00etara edo 23:00etatik 09:00etara jaiegunetan))

##### **Kanpo girorako jasotako alderdiak**

Ibilgailuen erabilerarekin lotutako jokabideak: alferreko zaratak, ihesgailu libreekin edo egoera txarrean daudenak, eta berariaz horretarako adierazitako lekutik kanpo egindako zamalanak. Bidenabar, gatazkak eta borrokak debekatuta daude, edo espazio publikoa bidegabe erabiltzea ere debekatuta dago. Horrez gain, propaganda edo publizitaterako gailuak erabiltzeko edo jaiak eta bilerak ospatzeko, lokaletan molestiak eragin baditzakete, baimena beharko da edo debekatuta egongo dira.

Udalen batek jardueretarako tipifikatutako ordenantzako zarata mailak eskatzen ditu, jokabide horiez gain.

### Barne qirorako jasotako alderdiak

Etxebizitzen barrualdean honako hau debekatuta dago: telebistak, irratiek, altzarien mugimenduek, jolasek, kantuek, zaratek, istiluek, animalien zaratek eragindako zarata emisioaren ondoriozko nahasmenduak, eta zarata egitea etxebizitzetan sortutako alterazioen ondorioz, modu desegokian erabili eta okupatzeagatik edo debekatutako erabilerengatik.

Soinu mailak arautzeari dagokionez, zenbait ordenantzetan, esaterako, honela jasotzen da:

Irrati, telebista gailuak, musika tresna eta ekipoak, etxeko tresna elektrikoak, etab., egoitza partikularretan, honako Leq emisio maila hauek gainditzen ez badira:

a. Logelak: 8-21: 40dBA/21-8:30 dBA

b. Egongelak edo sukaldeak: 8-21: 45dBA/21-8:35 dBA

Edozein motatako etxeko gailu elektriko, musika tresna edo gailu edo gailu akustiko etxebizitzen barruan erabiltzean ez dira ordenantza honen eranskinean ezarritako zarata mailak gaindituko (egoitza mailan: 40,30 +5 max). Aireztapen eta/edo klimatizazio instalazioen funtzionamenduak (erabilera pribatiboak edo sistema orokorrak izan) ez du sorraraziko alboko edo gertuko eraikinetan ezarritako emisio maila gaindituko duen zaratarik, barruan zein kanpoan (egoitza: 40,30 +5 geh.).

Barrualdeko zaratari dagokionez, aintzat hartu beharreko bi aldagai daude:

- Araudia betetzea zaindu behar duen pertsona etxebizitzaren jabea da, alokairuaren kontratuak berariaz errentaria dela esaten ez badu.
- Berariazko erreferentzia bat egiten zaio etxebizitza barruko horrelako gaiak Jabetza Horizontaleko Lege barruan kokatuta egoteari.

### **Botiloia**

Definizioa: “botiloia praktikatzea” kalean edo espazio publikoetan edatea da, gehienetan edari alkoholodunak, ostalaritza lokaletatik ez datozenak, taldean. Jarduera horren emaitza modura baliteke molestiak eragitea espazio publikoa erabiltzen duten gainerako pertsonen, auzokideen, lasaitasuna asaldatuz eta/edo osasungarritasunik ezako egoerak eragitea.

Zigor eta arau hausteen aplikazioa dakarten ondorioak: Botiloia egiteak aldaketa larria dakar auzokideen bizikidetzan, honako zerbait gertatzen bada:

a) Herritar taldeek modu masiboan kontsumitzen badute, edo horien aglomeraziorako gonbidapena egiten bada.

b) Kontsumoa modu iraingarrian kanporatzea oinezkoentzat edo espazio publikoen gainerako erabiltzaileentzat.

c) Bilkura edo jarduera espazio berezian egitea, haurrak eta nerabeak daudelako edo adingabeak egoten direlako.

## 5. Bide publikoko obren gaiaren analisi konparatua

Atal honetan obren zarataren arazoa lantzeko analisi konparatua egin da, aztertutako ordenantzei dagokienez.

Kontsultatutako ordenantza guztietatik Durangoko adibidea da osatuena jarduerak tipifikatzen eta jarduera horiek eragindako zarata mailaren eskakizunetara egokitzen.

### Obren ordutegia:

*Kanpoan:* 08:00etatik 22:00etara.

*Etxebizitzen barrualdean:* 09:00 – 21:00.

Ordutegi horretatik kanpo baimena eskatu behar da.

### Obrak egiteko zarata baldintzak:

Kasu batzuetan jarduerari eskatzen zaien gauza bera eskatzen da, baina ez da errealista; hala, ez betetze hori ahalbidetuko duten baimenak emateko salbuespena, azkenean, arau bihur daiteke.

Aire libreko makineriaren emisioari buruzko otsailaren 22ko 212/2002 ED betetzen dela justifikatzeko agiria jasotzea gomendagarria da.

Zarata maila mugatzeari dagokionez, aukerarik gomendagarriena Durangoko ordenantzan jasotakora egokitzea da:

- Fatxadan baimendutako gehienezko soinu maila:  $L_{Aeq\ 1h} = 85$  dBA
- Etxebizitzen barrualdean baimendutako gehienezko immisio maila:  $L_{Aeq\ 1m} = 50$  dBA

## 6. Txoko eta gazte lokalen gaiaren analisi konparatua

Atal honetan txoko eta gazteen lokalei lotutako zarataren arazoa lantzeko analisi konparatua egingo da.

Jarraian, berrikusitako ordenantzetan modu berean landutako gaien laburpena egingo da:

### **Txoko eta gazteen lokaletarako ordutegiak:**

Funtzionamendu ordutegiari dagokienez, 22:00etan edo 24:00etan ixten dira; ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperetan 0,5 eta ordubete gehiago luza daiteke. Kasu batzuetan ordutegi zabalagoak baimentzen dira, jai garaietan.

### **Txoko eta gazte lokaletarako zarata oharrak:**

Ordenantza batzuetan jardueren lokal edo kultura etxe moduan hartzen dira, eta horrek esan nahi du etxebizitzaren barruan immisio mailen exigentzia 40 dBA ingurukoa dela egunean zehar (08:00etatik 22:00etara normalean), eta 30 dBA ingurukoak gauaz (22:00etatik 08:00etara normalean). Horrez gain, gehienezko barne immisioa 75 eta 60 dBA artekoa izaten da, eta batzuetan mugagailu bat instalatzeari lotuta egoten da. Batzuetan gehienezko emisio maila hori lokal barruan gainditzea baimentzen da, isolamendu akustikoa betetzeko baldintzapean.

Bestalde, ordenantza hauetan gomendio orokorrak ere jasotzen dira:

- Ateak eta leihoak telebista, musika gailu, bozgorailu eta horrelakoetatik urruntzea.
- Kantu, txistu, oihu eta bestelakoek eragindako zaratak saihestea.
- Pertsianak ireki eta ixteko zarata amaigabea saihestea.
- Lokalaren kanpoaldean edo inguruan jendea biltzea saihestea. Atsedean hartzeko eskubidea bermatu egin behar da, gazteak lokalaren sarreran biltzea debekatuz 22:00etatik aurrera.
- Lokalaren sarreran motordun ibilgailuekin gehiegizko zarata sortzea saihestea.
- Pertsonak sartu eta irteteak eragindako zaratekin kontu handiz jokatzeko.
- Pertsianak, ateak eta leihoak etengabe irekitzea saihestea, baita alferreko mota guztietako zaratak ere.
- Soinurik egingo ez duen tinbre bat instalatuko da; soinua egin beharrean argia emango du.
- Lokalaren jarduerak barruan egin behar dira, inoiz ez kanpoan edo inguruetan.

## **7. Ondorioak**

Nabarmendu behar da aztertutako gai batzuk ez daudela tauletan jasota ordenantza gehienek modu berean hartu dituztelako, edo ordenantza gutxitan landu zirelako gai horiek. Jarraian arlo tematiko horietarako lortutako ondorioak zehaztu dira:

EKITALDIAK (ordenantza gutxitan landu dira): oro har, ordutegi orokorra eta baimen berezi baten bidez izapidetzeari buruzkoak dira; baimen horietan kalitate helburuen balioak behin-behinean bertan behera uzten dira.

MEGAFONIA (hizpide izan duten ia ordenantza guztiek ikuspuntu beretik landu dute gaia): soinu gailu oro erabiltzea debekatu da propaganda, publizitate, abisu edo arreta galtzeko helburuz erabiliz gero, salbu eta kultura proiektuak ekitaldietan edo oro har onartutakoetan, edo baimena dagoen kasuetan.

KALE MUSIKARIAK (erreferentzia bakarra Bilboko Udalarena da)

Emanaldiak aski zabalak diren espazio publikoetan egingo dira.

Emanaldiak beti 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara egingo dira, eta ezingo dira 45 minutu baino luzeagoak izan. Epe hori igaro ondoren, bide publikoko beste puntu bat aukeratu beharko da emanaldiarekin jarraitzeko; emanaldia ezingo da puntu eta egun berean errepikatu. Ostalaritza terrazak eta antzekoak dituzten bide publikoko puntuetan ezingo dira kokatu, eta ezingo dute dirua modu aktiboan eskatu. Anplifikadoreak, bozgorailuak eta aurretiaz grabatutako musika erabiltzen bada, emisio akustikoa ezingo da 70 dBA baino gehiagokoa izan, 5 metroko distantziara neurtuta

BIDE GARBIKETA ETA HONDAKINAK BATZEARI dagokionez, landutako gaiak orokorrak dira, esaterako honakoak:

Hondakinak batzeko, lorezaintzako eta bide publikoko garbiketa lanetan beharrezko arreta eta neurriak hartuko dira herritarren lasaitasuna ahalik eta gutxien aztoratzeko. Horrelako zerbitzuen kontrata baldintzen pleguetan modu positiboan hartuko dira ibilgailuei aplikatu dakizkieken soinu emisioen mugak.

Bestalde, jarraian, txosteneko ataletan komentatutako alderdietatik garrantzitsuenak zein diren aipatuko da, edo Bizkaiko Foru Aldunditik proposamen bat definitzeko erabakiak hartzeko behar direnak.

#### TERRAZAK:

- Auzokideen atsedenearekin bateragarria den ordutegia definitzea.
- Soinu ekipoak erabiltzea debekatzea.
- Musika ekipoak edukitzeko baimena daukaten lokalei terraza baimenik ez emateko konpromisoa hartzea (pub, taberna bereziak), ulertzen baita bateraezina dela jarduera ate itxiekin garatzea. Edo berariaz zehaztea ezinezkoa dela terraza edukitzea eta ekipoa martxan izatea; aukera horrek jarduera kontrolatzea zailtzen du.
- Jardueraren sustatzailearen terrazak sortutako zarataren ardurari buruzko erabakia hartzea.
- Mugako zarata mailak aplikagarriak izateari buruzko erabakia hartzea, kontuan hartuz jarduera horren zarata erabiltzailearen mende dagoela.

#### TXOSNAK ETA BARRAKAK

- Auzokideen atsedenarekin bateragarria den ordutegia definitzea.
- Megafonia bakarraren printzipioa onartzea, emisio neurtuaren mugarekin edo fatxadako soinu intzidentearekin edo ekipoen distantziara emisio maila modura (etxebizitzaren gertutasunaren arabera)
- Jarduerarekin eta auzokideen atsedenarekin bateragarriak diren zarata mailen atalasea definitzea (kontuan hartuz jarduera puntual bat dela) eta, horrenbestez, aurreko puntuan komentatutako mugak definitzea.
- Barraken kasuan, lan esparrua txosnen kasuaren berdina da, baina erabiltzailea babesteko printzipioari erreparatu behar zaio (askotan adingabeak); hala, eskatutako emisio mailak txosnetan baino baxuagoak izan beharko lirateke, eta etxebizitzaren distantzia kontuan hartu gabe landu daitezke. Halaber, ordutegia jarduera motaren araberakoa izan behar da, eta desberdina txosnen ordutegiarekin erkatuta.

#### AUZOKIDEEN JOKABIDEA

- Barrualdeetako zaratak ordenantzetan landu beharreko zerbait ote den erabaki behar da, eta, hala bada, eragozpenak zein eta nola diren ere erabaki behar da. Bildu daitezkeen zenbait gai hauek dira: ordutegiak, gailu elektrikoak muga akustikoak. Bidenabar, ordenantza batzuetan gai orokorrak jaso dira.
- Kanpoaldeari dagokionez ere gai orokorrak landu dira, eta ez da argi geratu kontrol eta/edo zigorrak aplikatzeko eremua zein den

#### BOTILOIA

- Kontzeptuaren puntu diskrezionalak aztertu egin behar dira, baita objektibotasun handiagoa emateak merezi duen ere.
- Mota desberdinetako zigorrak eragiten dituzten ondorioak aplikatzeko modua zehaztu behar da, objektibotasun handiagoa emateko eta kausetako batek gehiegizko soinu mailarekin lotura izatea.

#### OBRAK

- Oro har kanpoalderako 08:00etatik 22:00etara arteko ordutegia onartu da; ordutegi horretatik kanpo baimena behar da. Barrualdean, berriz, kanpoaldean baimendutako ordu kopurua murriztu egiten da.
- Baimendutako gehienezko maila parekidea ezartzea gertuko eraikin sentikorren fatxadetan lagungarria izan daiteke gutxieneko maila lortzeko, baina kontrol baliabideak eskatzen ditu. Interesgarria izan daiteke soinu mailak egiaztatzea eskatzen ez duten eskakizunak finkatzea eragin handiko inguruneetako obretan (esaterako: zulatu, moztu eta eraisteko lanak denak aldi berean ez egitea).
- Makineriarako soinu emisioen zuzentaraua betetzeko eskakizunak ez du bermatzen obretan soinu maila txikia sorraraztea (ez dagoelako jarduera motarekin lotuta), baina lagungarria da makineriaren gutxieneko kalitatea finkatzeko.

#### GAZTEEN LOKALAK

- Definitu behar da jarduera moduan izapidetzen ote diren; horrek neurri zuzentzaile batzuen baldintzapeko komunikazio edo lizentzia eragingo luke.
- Zehaztu behar da mugagailu akustikoa eta/edo lokala egokitzea beti eskatzen den (aire zaratari zein eraginari dagokionez).
- Barrualdean immisio mailak betetzeko eskakizuna egokia da kontuan hartuz LAeq delakoari LAm<sub>ax</sub> delakoa gehitu beharra aplikagarria dela.
- Azkenik, gomendio orokorrak debeku edo exijentzia modura jasotzea egokiagoa dela ulertu da.

## 1. eranskina: Aztertutako ordenantzen zerrenda

Udalerrria	Hiri espazioko eragin akustikoa duten ordenantzak.
<b>ABADIÑO</b>	Espazio publikoan barra eta terrazak instalatzea arautzeko udal ordenantza, 2014.
<b>ABANTO ZIERBENA</b>	Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza, 2005.  Herriko jaiak eta bestelako ekitaldiak direla-eta jarriko diren txosnen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza. 2016ko ekainaren 2ko BAO.  Zirkulazioaren udal ordenantza, 2008ko otsailaren 4ko BAO.
<b>ALONSOTEGI</b>	Erabilera publikoko espazioetan terrazen ordenantzaren hasierako onarpena. 2015eko abuztuaren 25eko BAO.
<b>AREATZA</b>	Areatzako udalerrian, erabilera publikoko espazioetan terrazak eta mahai hankabakarrak kalean jartzeari buruzko udal ordenantza. 2014ko urriaren 14ko BAO.  Hiri garbiketa arautzeko ordenantza.
<b>BAKIO</b>	Oinezkoen eta ibilgailuen trafikoari buruzko udal ordenantza. 2007ko azaroaren 16a (42. art. Bi gurpileko ibilgailuak).  Hiri garbiketari buruzko udal ordenantza. 1996ko irailaren 26a  Bakion oinezkoen zona arautzeko ordenantza. 2008ko maiatzaren 27a.
<b>BARAKALDO</b>	Bide garbiketaren ordenantza. 2005eko maiatzaren 23a  Terrazen ordenantza. 2011ko uztailaren 13a.  Trafikoari buruzko udal ordenantza. 2000ko martxoaren 30a (44. art.)  Barakaldo jai nagusien udal ordenantza, 2013ko urtarrilaren 2koa.  Barakaldoko jai nagusietan barrakak eta jolas parkeak instalatzea arautzeko ordenantza. 2016ko urriaren 25eko BAO.  Ingurumena zarata eta bibrazioen aurka babestea arautzeko ordenantza. 1995eko uztailaren 5eko BAO.
<b>BASAURI</b>	Ostalaritzako terrazak instalatzea arautzeko ordenantza, 2015eko ekainaren 22a.  Jokabide eta garbiketa publikoa arautzeko ordenantza.  Espazio publikoa arautzen duen ordenantza, 2017ko otsailaren 1ekoa.  Basauriko udalerrian herriko jaiak edo bestelako ospakizunetan instalatzen diren txosnak erregulatzeko udal araudia.  Trafikoa eta zigortzeko udal ahalmena gauzatzeko prozedura arautzeko ordenantza, trafikoaren, motordun ibilgailuen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloan.

<b>BEDIA</b>	<p>Herriko jaietan eta beste ospakizun batzuetan jartzen diren txosnen eta antzekoen jarpena, esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen udal ordenantza. 2014ko urtarrilaren 3ko BAO.</p>
<b>BERANGO</b>	<p>Bibrazio eta zarataren ondoriozko kutsadura akustikoaren aurrean udal jarduna arautzeko ordenantza.</p> <p>Maiatzeko lehen igandeko nekazaritza azokan instalatuko diren txosnak instalatu eta funtzionatzeko oinarri arautzaileak.</p> <p>Berangoko gazteen lokalei buruzko udal ordenantza.</p> <p>Bide publikoan terrazak instalatzea arautzeko udal ordenantza.</p> <p>Berango udalerriko espazio publikoan kaleko edana galarazteko udal jarduera arautzen duen udal ordenantza.</p> <p>Herri barruko bide eta kaleetan trafikoa, erabilpenak eta segurtasuna arautzeko udal ordenantza. 2006ko urriaren 6a.</p>
<b>BERMEO</b>	<p>Bide publikoa mahai eta aulkiekin okupatzea arautzeko udal ordenantza</p> <p>Bermeon terrazak instalatzea arautzeko ordenantza, 2014ko abenduaren 30eko BAO.</p> <p>Herriko jaiak edota bestelako ospakizunetarako jartzen diren txosnen udal araudia. 2012ko irailaren 21eko BAO.</p> <p>Bermeoko zirkulazio ordenantza, 2014ko urtarrilaren 16ko BAO.</p> <p>Bizikidetzako udal araudia, 2015eko irailaren 11ko BAO.</p> <p>Zarata eta bibrazioen aurka babesteko ordenantza. 2016ko uztailaren 16ko BAO.</p>
<b>BERRIZ</b>	<p>Aisialdi erabilera duten lokalen udal ordenantza. 2014ko urtarrilaren 31ko BAO.</p> <p>Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko udal ordenantza. 2016ko martxoaren 30eko BAO.</p> <p>Hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna araupetzen dituen ordenantza. 2010eko maiatzaren 10eko BAO.</p>
<b>BILBAO</b>	<p>Ingurumena zaintzeko udal ordenantza. 2000ko ekainaren 10eko BAO.</p> <p>Espazio publikoaren ordenantza, 2010eko irailaren 27ko BAO.</p> <p>Hiri garbiketaren ordenantza.</p> <p>Oinezkoen pasabide berri eta abiadura motelgailuen udal ordenantza.</p> <p>Bilboko jaien ordenantza, 2014ko maiatzaren 31koa.</p> <p>Zirkulazioaren udal ordenantza, 1999ko irailaren 10eko BAO.</p>
<b>DERIO</b>	<p>Bide publikoan ostalaritzako terrazak eta mahaiak jartzeko ordenantza arautzailea. 2007ko abenduaren 10eko BAO.</p>

	<p>Herriko jaietan eta beste ospakizun batzuetan instalatzen diren txosnen eta antzekoen instalazioa, esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen udal ordenantza. 2014ko ekainaren 19koa.</p> <p>Herri barruko bide publikoetan trafikoa, erabilpenak, zirkulazioa eta segurtasuna arautzeko ordenantza. 2006ko abenduaren 26ko BAO.</p> <p>Gazteen lokalak arautzeko udal ordenantza.</p> <p>Herritarren bizikidetzaren ordenantza. 1991ko maiatzaren 11ko BAO.</p>
<b>DURANGO</b>	<p>Bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzea arautzen duen udal ordenantza, 2012ko azaroaren 2ko BAO.</p> <p>Obrak egitean ingurumena hobetzeko udal ordenantza, 2012ko abenduaren 10eko BAO.</p> <p>Zirkulazioaren udal ordenantza, 2010eko ekainaren 24ko BAO (11., 55. art. eta I. Eranskina).</p> <p>Herriko jaietan edo bestelako ospakizunetan instalatu beharreko txosnen araudia. 1996ko irailaren 5eko BAO.</p>
<b>ELANTXOBE</b>	<p>Herriko jaiak edo bestelako ospakizunetan instalatzen diren txosnei buruzko udal ordenantza.</p>
<b>ELORRIO</b>	<p>Hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna arautzeko dituen udal ordenantza. 2009ko apirilaren 16ko BAO.</p> <p>Gazteak elkartzeko lokalen erabilera arautzeko ordenantza. 2011ko urtarrilaren 12ko BAO.</p> <p>Espazio publikoan barrak eta terrazak instalatzeko ordenantza. 2012ko uztailaren 27ko BAO.</p>
<b>ERANDIO</b>	<p>Erandio udalerrian espazio publikoan botiloia egiteari buruzko udal ordenantza. 2014ko uztailaren 28ko BAO.</p> <p>Terrazak eta kaleko mahai-aulkiak arautzeko ordenantzaren hasierako onarpena. 2004ko ekainaren 7ko BAO.</p>
<b>ERMUA</b>	<p>Gazteentzako lokalen jarduera arautzeko ordenantza.</p> <p>Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza.</p> <p>Herriko jaiak edo bestelako ospakizunak direla medio espazio publikoetan instalatuko diren txosna eta parekoen esleipen eta funtzionamendua arautzeko oinarriak, 2013. urtea.</p> <p>Ostalaritza establezimenduak eta aisialdi jarduerak instalatzea arautzeko ordenantzaren hasierako onarpena. 2017ko uztailaren 4ko Erabakia.</p>
<b>ETXEBARRI</b>	<p>Hiri garbiketako udal ordenantza, 2002ko abuztuaren 16ko BAO.</p> <p>Etxebarriko udal mugartean txosnak instalatzeko araudia. 2001eko maiatzaren 3ko BAO.</p> <p>Erabilera, trafiko, zirkulazio eta bide segurtasunaren ordenantza arautzailea. 2010eko irailaren 23ko BAO.</p>

	Terrazak instalatzeari buruzko ordenantza. 2012ko otsailaren 9ko BAO.
<b>GALDAKAO</b>	Terrazak instalatzea arautzeko udal ordenantza. 2004ko ekainaren 21eko BAO.  Zirkulazioaren udal ordenantza, 2011ko urtarrilaren 28koa.
<b>GERNIKA LUMO</b>	Terrazak instalatzea arautzeko udal ordenantza. 2010eko uztailaren 16ko BAO.  Gernika Lumoko gazteen lokalei buruzko udal ordenantza.
<b>GETXO</b>	Ostalaritza eta merkataritza jardueri lotutako erabilera publikoko espazioaren okupazioa arautzeko udal ordenantza, 2016ko urriaren 26a.  Ibilgailuek sortutako zarataren udal ordenantza, 2006ko ekainaren 30ekoa.  Hiri barruko bide publikoetan trafikoa, erabilpenak eta segurtasuna antolatzeko udal ordenantza. (15. art., ibilgailuak; 85. art. eta hurrengoak: zamaanak)  Zarata eta bibrazioen udal ordenantza. 1992ko uztailaren 11ko BAO.
<b>GORLIZ</b>	Udalerriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna araupetzen dituen udal ordenantza. 2008ko abuztuaren 12ko BAO.  Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza, 2016ko abenduaren 29koa.
<b>GUENES</b>	Bide publikoan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza, 1997ko apirilaren 8koa.  Auzoko edo herriko jaiak edo bestelako ospakizunak direla-eta, txosnak instalatzeko ordenantza.  Zarata eta bibrazioen emisio eta harrera arautzeko udal ordenantza, eta ostalaritza eta aisialdi aretoen ikuskaritza. 1997ko apirilaren 4koa.
<b>IGORRE</b>	Herriko jaiak edo bestelako ospakizunetan instalatzen diren txosnei buruzko ordenantza.  Terrazei buruzko ordenantza.
<b>IURRETA</b>	Iurretako jaietan barrakak eta jolas guneak instalatzeko ordenantza arautzailea.
<b>LANESTOSA</b>	Terrazen ordenantza arautzailea, 2017ko otsailaren 3koa.
<b>LEIOA</b>	Gizabideari buruzko ordenantza, hiri paisaia babestu eta espazio publikoaren erabilera arautzekoa. 2007ko martxoaren 29ko BAO.  Hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna araupetzen dituen ordenantza. 2011ko urtarrilaren 7ko BAO.  Udal txokoak erabiltzeko ordenantza arautzailea. 2017ko ekainaren 30eko BAO.
<b>LEKEITIO</b>	Hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna araupetzen dituen udal ordenantza. 2010eko abuztuaren 31eko BAO.  Herriko jaietan eta beste ospakizun batzuetan instalatzen diren txosnen eta antzekoen

	esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen udal ordenantza. Behin betiko onarpena. 2010eko abuztuaren 18ko BAO.
<b>LEMOA</b>	Botiloia egitea eragozteko udal jarduna arautzeko toki ordenantza. 2012ko uztailaren 3ko BAO.  Ingurumeneko ordenantza. 2007ko urriaren 24ko BAO.
<b>LEZAMA</b>	Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza.
<b>LOIU</b>	Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza, 2010eko apirilaren 29koa.
<b>MALLABIA</b>	Hiri barruko bide publikoetan erabilpenak eta zirkulazioa arautzeko udal ordenantza.
<b>MAÑARIA</b>	Herriko jaien ondorioz instalatuko diren txosnak arautzeko udal araudia.
<b>MARKINA XEMEIN</b>	Hiri barruko bide publikoetan trafikoa, erabilpenak eta segurtasuna antolatzeke udal ordenantza.
<b>MENDEXA</b>	Erabilera publikoko espazioetan barra eta terrazak instalatzea arautzeko udal ordenantza.
<b>MUNDAKA</b>	Hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna antolatzen dituen udal ordenantza. 2008ko abuztuaren 20eko BAO.
<b>MUNGIA</b>	Herriko jaietan eta beste ospakizun batzuetan instalatzen diren txosnen eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen udal ordenantza.  Mungian lonjak gazteak elkartzeko toki modura erabiltzeari buruzko udal ordenantza.  Erabilera publikoko espazioan terrazak instalatzeko arloko udal ordenantza. 2013ko martxoaren 7a.  Zarata eta bibrazioen udal ordenantza.
<b>MUSKIZ</b>	Muskizko zarata eta bibrazioen ordenantza. 2013ko uztailaren 4ko BAO.
<b>ONDARROA</b>	Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza.  Ondarroako ingurumeneko udal ordenantza. 2010eko urriaren 8ko BAO.
<b>OROZKO</b>	Herriko jaien ondorioz instalatuko diren txosnak arautzeko udal araudia. 2011ko uztailaren 8ko BAO.
<b>ORTUELLA</b>	Ortuella udal mugartean zirkulazioa arautzeko ordenantza, 2014.  Ortuellako ostalaritzako establezimendu publiko eta antzekoetan terrazak arautzeko ordenantza.
<b>PLENTZIA</b>	Plentzia udalerrian herritarren bizikidetzak sustatu eta bermatzeko neurrien ordenantza. 2009ko urriaren 7ko BAO.  Zamalanen udal ordenantza, 2006ko maiatzaren 4a.

	<p>Bide segurtasuna, zirkulazioa eta trafikoa antolatzeke udal ordenantza, 2002ko urtarrilaren 31koa.</p> <p>Plentziako hiribilduko erabilera publikoko guneetan ostalaritzako establezimenduek terraza gehigarriak ipintzea arautzen duen udal ordenantza. 2015eko martxoaren 17ko BAO.</p>
<b>PORTUGALETE</b>	<p>San Roke jaietan txosnak instalatzeari buruzko Udal Ordenantza. 2004ko abuztuaren 9ko BAO.</p> <p>Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza, 2012ko uztailaren 16koa.</p> <p>Bibrazio eta zaraten aurka ingurumena babesteari buruzko udal ordenantza. 2004ko irailaren 14ko BAO.</p>
<b>SANTURTZI</b>	<p>Santurtzin erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza.</p>
<b>SESTAO</b>	<p>Sestaoko udalerrian hiri-bizikidetasuna bermatu eta sustatzeko neurrien Ordenantza. 2009ko ekainaren 19ko BAO.</p> <p>Erabilera publikoko espazioetan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza. 2012ko azaroaren 19ko BAO.</p> <p>Sestaoko Ingurumen Ordenantza. 2004ko urtarrilaren 12ko BAO.</p>
<b>SONDIKA</b>	<p>Herri erabilerako guneetan terrazak instalatzea arautzen duen ordenantza, 2005eko azaroaren 23koa.</p> <p>Gazteen lokalak arautzeko udal ordenantza. 2012ko urriaren 9ko BAO.</p>
<b>SOPELA</b>	<p>Sopelako jai nagusien udal ordenantza, 2014ko otsailaren 4ko BAO.</p> <p>Terrazei buruzko ordenantza, 2013ko martxoaren 7koa.</p>
<b>TRAPAGARAN</b>	<p>Erabilera publikoko espazioan barra eta terrazak instalatzea arautzeko udal ordenantza, 2016ko apirila.</p> <p>Hiriko bide publikoetan trafikoa, erabilerak eta segurtasuna araupetzen dituen udal ordenantza. 1996ko abuztuaren 13ko BAO.</p>
<b>UGAO MIRABALLES ZALDIBAR</b>	<p>Gazteen lokalen segurtasun eta bizikidetzarako protokoloa, 2016ko ekainaren 13koa.</p> <p>Zaldibarko gazteen lokalak arautzeko ordenantzaren hasierako onespina. 2016ko ekaina</p>
<b>ZALLA</b>	<p>Zallako jaietan txosnak instalatzea arautzeko ordenantza, 2015ekoa.</p> <p>Gangas Egunean txosnak kokatzeko araudia, 2015.</p> <p>Herritarren bizikidetzara arautzeko udal ordenantza.</p> <p>Bide publikoan terrazak instalatzea arautzeko ordenantza.</p> <p>Zalla udalerrian autokarabanak aparkatzea arautzeko udal ordenantza.</p>

<b>ZIERBENA</b>	Trafikoa antolatzeko udal ordenantza, 2004ko abenduaren 31ko BAO.
<b>ZORNOTZA AMOREBIETA</b>	Erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta bide segurtasuna arautzeko udal ordenantza. Terrazak instalatzea erregulatzeko udal ordenantza.